

## **KOMUNIKATUA:**

Sestaoko kristau komunitatea, Caritas barne, oso kezkatuta dago herrian nagusitzen ari den sumindura egoerarekin, eta justizia sustatu eta pertsona ahulenen eta babes beharrezkoak handiena dutenen aldeko jarrera hartu behar du; ezinbestekoa baita pertsona horientzat oinarrizko eskubideak bermatzea, gizarteratzeko ahaleginak egitea eta guztion ongia bilatzea.

Erroldatzea eskubide bat eta beharrezko elementu bat da beste eskubide asko egikaritzeko (adin txikikoak eskolan sartzea, oinarrizko arreta zerbitzuak izatea -sozialak eta sanitarioak-, gizarte larrialdiko laguntzak jasotzeko aukera, eta abar).

Arduradun politikoei, gizarte erakundeei eta orokorrean herritar guztiei eskatu nahi diegu ahalik eta ahaleginik handiena egin dezatela gizarteratzea lortzeko, eta guztion oinarrizko eskubideak ziurtatu eta errazteko.

Arduradun publikoek eredu izan behar dute elkarbizitza arloan, eta mina eta aurkaritza sortzen dituzten adierazpen eta jarrera guztiak saihestu behar dituzte. Izan ere, argi daukagu helburuak ez dituela inola ere bitartekoak justifikatzen.

Gure konpromisoa berretsi nahi dugu kohesio soziala eta gizarte senide artekoagoa, bidezkoagoa eta inklusiboagoa planteatu, bultzatu eta bermatzeko lanean, pertsona guztiok eskubide eta aukera berdinak izan ditzagun.

## **COMUNICADO:**

La comunidad cristiana de Sestao, a la que pertenece Cáritas, manifiesta su preocupación ante el aumento de la crispación general en el municipio y está llamada a promocionar la justicia y a posicionarse a favor de las personas más débiles y con más necesidad de protección, para las cuales es imprescindible garantizar el acceso a los derechos, el esfuerzo por la integración y la búsqueda del bien común.

El empadronamiento es un derecho y un elemento necesario para acceder a otros muchos (derecho a la escolarización de menores, acceso a servicios de atención primaria -sociales y sanitarios-, acceso a ayudas de urgencia social, etc.).

Solicitamos a los responsables políticos, a las organizaciones sociales y a la ciudadanía en general el máximo esfuerzo para conseguir la integración y asegurar y facilitar los derechos fundamentales de todas las personas.

Los responsables públicos deben ser ejemplo de convivencia, evitando expresiones y posicionamientos que creen dolor y frentismo. Estamos convencidos de que, en ningún caso, el fin justifica los medios.

Mantenemos nuestro compromiso en plantear, facilitar y garantizar todos los procesos a favor de la cohesión social y de una sociedad más fraterna, justa e inclusiva, donde todas las personas tengan los mismos derechos y oportunidades.

